

## ADRIEN GATXITEGI GOSTARI (1921-2018): BENEDITAR, LABORARI, IRAKASLE, IDAZLE

### **Beloke: zerupe, aterpe**

Lapurdiko Ahurti herriko Beloke abatetxea aipatzean, Aita Xabier Diharce *Iratzeder* olerkari handi ere handiaren oroimena eta haren olerkien oihartzun samurra datorkigu literaturzale euskaldunoi gogo-bihotzetara. Kasuon, baina, Belokeko historiaren ia mende oso baten lekuko izan zen beneditar ezezagunago bat dakargu *Karmelen* orrietara: Adrien Gatzitegi alduar beneditarra (1921-2018).

Edozelan ere, *aterpe*zat ere jo izan dugu apur bat gorago Beloke, eta horren harira, aipatu nahi genuke aurtengo urtaririlaren 24an, Eusko Jaurlaritzak eta Gogora institutuak hango fraide beneditarren komunitateari eginiko omenaldia:

“Eusko Jaurlaritzak eta Gogora institutuak Ahurtin (Lapurdi) dagoen Belokeko monasterioko monje beneditarrek omendu dituzte, 1936tik 1940ra bitarte euskal herritarrei eskainitako laguntza eta babesagatik. Iñigo Urkullu lehendakaria buru zuela, Eusko Jaurlaritzaren eta errefuxiatu batzuen senideen ordezkariak txiki bat eta Frantziako hainbat erakundetako ordezkariak, horien artean, Iparraldeko presidentea Jean-René Etchegaray eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluaren presidente Jean-Jacques Lasserre, Belokeko monasteriora joan dira lan hori eskertzeko asmoz. [...] Belokeko monje beneditarrek jazarritako pertsoneri laguntzeko agertutako konpromisoa eten-gabea izan da monasterioaren historia hurbilean. Izan ere, II.

Mundu Gerran ere babesa eskaini zioten Frantziako erresistentziari, eta erregimen frankistak errepresaliatutako euskaldunak hartu zituzten berriz 60ko hamarkadan. Gaur egun, ildo berean jarraitzen dute lanean, eskualdera iristen diren etorkin eta errefuxiatuei laguntza eta babesa eskainiz”<sup>1</sup>.

Omenaldi merezia, zinez, Adrien Gatxitegik ikusteko paradirik izan ez zuena. Izan ere, esan beharra dago, Aita Gatxitegi II. Mundu Gerran naziak-eta jazarritako iheslarien aldeko ekimenetan parte-hartze zuzena izan zutenetako bat izan zela. Ekintza horien gainean, dihardu Iratzederrek bere *Beloque-ko Abatetxearen Historia* liburuko “Munduko nahasmenduen artetik, beti aintzinat” kapituluan<sup>2</sup>.

### **Aldudetik Belokera**

Aita Adrien Gatxitegi Nafarroa Behereko Aldude herriko Berhainborda etxean jaio zen 1921eko maiatzaren 5ean. Aita, Jean Gachiteguy, Aldudekoa bertakoa; ama, Thomasa-Maria Gostari, Nafarroa Garaiko Arraioz herrian jaioa. Bederatzi neba-arrebetatik seigarrena genuen Adrien. Bere lehenengo ikasketak herriko eskolan egin zituen, eta 1933an Beloqueko monastegiko eskolara joan zen. Edozelan ere, berak kontatzen digunez, beneditarraren artean, lehenengo eskola-urratsak Gipuzkoako Lazkao herriko komentuan eman zituen<sup>3</sup>. 1938an, Paueko l’Immaculée ikastetxera joan zitzaigun

<sup>1</sup> <https://www.gogora.euskadi.eus/albiste/2020/beloqueko-monasterioa/aa82-nogogora/eu/>.

<sup>2</sup> Diharce, Xavier (Iratzeder): *Beloque-ko abatetxearen historia (1875-1975)*, Ed. *Mensajero*, Bilbo, 1993, 33-36.

<sup>3</sup> Euskadi Irratiko Faktoria irratsaioan eginiko elkarrizketa: “Adrien Gatxitegi, ikerlari nekaezina ezagutu dugu” (2017-01-05). Izan ere, 1902an, Frantziako Gobernuak agindua eman zuen, beste batzuen artean, beneditarren ordena desegiteko. Hasieran inguruko etxeetan eman zieten abegia, baita artatu ere; baina, laster, hegoaldera egin behar izan zuten ihes. Batzuek Ol-tza (Nafarroa) aldera egin zuten eta beste batzuek Idiazabalera (Gipuzkoa). Talde biak, Idiazabal herrian batu eta gero, Lazkaoako egoitza dena beharre-

batxilergoa amaitzera, eta, 1940an, Beloken fraide sartzeko eskaera eginda, beneditar habitua jantzi zuen.

Bigarren Mundu Gerran, alemanen menpeko lurraldeetako STO (Service du travail obligatoire) delakoren deia uko eginik, Hegoaldera pasatu zen, eta 1942-1943 urteetan, Lazkaoko monastegian egon zen<sup>4</sup>. Egonaldi horretan, parte-hartze aktiboa izan zuen gerra-iheslariei eta naziek jazarritako pertsoneri babesa eta laguntza ematen. Urte gogor ere gogorrak Adrien gaztearentzat; izan ere, oso tarte laburrean, guraso biak galdu zituen: ama, 1941eko maiatzaren 16an; eta, aita, 1942ko urtarriaren 27an. Gerrak pairarazitako lor guztiez gain, kolpe are latzagoa hartu behar izan zuen Berhainbordako semeak, guraso biak, ia batera, mundutik joatean.



*Belokeko abategia*

ko eta pobre batera joan ziren. 1928an, Frantzia fraideen kontrako giroa biguntzen denean, Hegoaldera ihesi joandako beneditarrak itzuli egin ziren Belokera, eta, haiekin batera, fraide gipuzkoar batzuek ere jo zuten Iparralderantz. Gerora, Lazkao abategia autonomo bilakatu zen.

<sup>4</sup> <http://www.belloceturt.org/pages/deces-du-p-adrien.html>.

Belokera itzulirik, monastegiko bizitzan berriro errotuta, 1946ko ekainaren 29an abadetu zen Adrien Gatxitegi, 25 urte zituela. Nekazarien seme izanik, biziki maite zuen Adrian gazteak laborantza mundua; eta, hori dela-eta, komentuko nagusiek Angers hirira bidali zuten, nekazaritza arloko goimailako ikasketak egitera. Handik, ingeniari titulua lorturik, Lapurdiko Ahurti herriko Beloke abatexera itzuli zen.

### Hegazkin-istripu larria Azoreetan

1949ko urriaren 27an, Parisetik New Yorkera zihoan hegazkina amildu eta kraskatu egin zen Atlantikoko Azore irletan. Hegazkin horretan Marcel Cerdan<sup>5</sup> boxealari frantses ospetsua zihoan, eta horrek zabalpen handiagoa eman zion istripu lagarriari. Istripuan, bidaiari guzti-guztiak hil ziren, 48 pertsona guztira (37 bidaiari eta tripulazioko 11 pertaideak). Kontua da, hegazkin horretan, beste pertsona famatu gehiagoren artean<sup>6</sup>, Ameriketara, arditara, zihoazen bost gazte euskaldun<sup>7</sup> ere zendu zirela, euretako hiru aldudarrak. Hona hemen, Azoreetan zendutako gazte euskaldunen izenak, jaioterriak eta adinak: Jean-Louis Arambel (Aldude, 21 urte), Jean-Pierre Aduritz (Aldude, 21), Jean-Pierre Siquilbide (Aldude, 25), Pierre Etchepare (Duzunaritze, 19) eta Guillaume Chourrout (Hozta, 38).

Pierre Echeperari buruz komeni da zerbait esatea. Izan ere, leku baten baino gehiagotan *Thérèse Etchepare* neska gaztea

<sup>5</sup> 1916an Argelien jaioa, baina jatorri espainiarra zuena. 1948an munduko txapeldun izatera heldu zen, baina 1949ko ekainaren 16an Jake LaMotta-k azpiratu egin zuen Deitroiten. Hain zuzen ere, LaMottaren kontrako errebantxa jokatzera zihoan Cerdan Estatu Batuetara.

<sup>6</sup> Ginette Neveu bibolin-jole gaztea, Bernard Boutet de Monvel margolaria..., besteak beste.

<sup>7</sup> “Ce funeste jour, cinq jeunes basques de la vallée des Aldudes se trouvaient à bord du Lockheed Constellation et le magazine Paris Match consacra un long reportage à ceux qu’il désigna maladroitement comme conquérants d’un nouvel Eldorado” ([https://www.iruerrege.com/iruerrege.com/Resume\\_Gachiteguy.html](https://www.iruerrege.com/iruerrege.com/Resume_Gachiteguy.html)).

agertzen baita hildakoen artean. Istripu gertatu eta handik 65 urtera, 2014an, Adrien Bosc frantziar idazleak *Constellation*<sup>8</sup> izeneko liburua argitaratu zuen, eta, bertan, hegaldi horretako bidaiarien eta tripulazioko kideen mundu pertsonala, alderdi humanoa-eta lantzen eta berreraikitzen saiatu zan. “Cinq bergers basques” kapitulutxoan (49-53), Bosc-ek ere, Pierre Etchepare barik, haren arreba *Thérèse* sarrarazten du Ameriketara doan boskotean: “Mercredi 26 octobre 1949, cinq bergers basques se retrouvent sur le quai de la gare de Bordeaux-Sain-Jean. Ils rêvent de revenir au país, fortune faite. Quatre garçons, une jeune fille, tous cultivateurs. Trèrèse Etchepare est une enfant de vingt ans aux logs yeux noirs...”<sup>9</sup>.

Hala ere, argigarria da Bosc-en liburuaren karietara argitaratuko testigantza hauxe: “Les frère et soeur Jean Ithurburu et Catherine Pordoy, de Bussunarits [Duzunaritze], avaient 11 et 8 ans lors de la disparition de leur cousin germain, Pierre Etchepare. *Il était resté domestique à Mongelos avant de partir. C’est sa soeur, Thérèse, installée à Paris, qui était allée reconnaître le corps après l’accident, se souviennent-ils*”<sup>10</sup>. Senideek esaten digutenez, Thérèse izan zen Pierre nebaren gorpua identifikatzera joan zena; beraz, nekez egon zitekeen Air France F-BAZN hegaldiko *Constellation* hegazkinean.

Orduko hedabide askok senideen bertsioari heltzen diote, eta Pierre duzunariztar gaztea aipatzen dute Azoreetako istripuan hildakoen artean. Iparraldeko bertako *Herria* aldizkarian, honako hau irakur zitekeen istripua gertatu eta egun gutxitara: “Jean-Pierre Etchepare Ameriketara abian zen *Constellation* aireplano handian, eta Azores mendietako [...] punta

<sup>8</sup> Bosc, Adrien: *Constellation*, Editions Stock, Paris, 2014. Bosc-ek liburu horrekin “Gran Prix du Roman de l’Académie française” delakoa lortu zuen 2014an.

<sup>9</sup> Ibidem, 49.

<sup>10</sup> <https://www.larepubliquedespyrenees.fr/2014/11/20>. Egia esan, testigantza horiek entzunda, nekez uler daiteke Bosc-en liburuan ematen de bertsioa.

bat jorik, kazetek diotenaz, mekanikari sua lotu zaio eta nehor ez deus ere ez da osorik gelditu”<sup>11</sup>. *Le Monde*-k ere, bide beretik jo zuen handik egun batzuetara<sup>12</sup>.

Berriak, Frantzia eta Iparralde osoa ez ezik, Belokeko komunitatea ere kolpatu zuen. Aita Jean Pierre Inda abat aldudarrak osaba bi zeuzkan Ameriketako artzain... A. Gatzitegiren aita hogeitau urtean egon zen hango mendietan artzaintzan... Hala ere, oso gutxi aipatu zen hori guztia Jean Pierre eta Adrianen etxeetako supazterretan. Bide beretik, Adrianen aitaren arreba txikia Ameriketako geratua zen, eta ezertxo ere ez zekiten hari buruz: “A cette époque, on ne s’écrivait pas ; on parlait quand on se rencontrait”<sup>13</sup>.

Azoreetako istripuak eraginda, Belokeko abatak proposamen bat luzatu zion Gatzitegiri, Angers-eko ikasketak amaitu eta gerorako: lehenengo, AEBetako Oklahoma-ko beneditarren komentura joatea ingelesa ikastera; gero, ingelesa bereganatuta, Kaliforniako Unibertsitatean<sup>14</sup>, nekazaritza-ikasketak aberastu eta osotu ahal izateko. Plan polita, zinez! Baina, egitekorik behinena, egia esan, AEBetako mendebaldean zeuden euskaldunen bizimodua, nahiak, ezinak, etorkizuna... ezagutzea eta aztertzea zen, mundu euskaldun berezi eta ez hain ezagun hori zertan zen ikusi ahal izan zezaten Iparraldeko senideek eta herritarrek, oro har. Jean Pierre Inda abata era honetara zuzendu zitzaion Adrien gazteari: “Est-ce qu’à la fin de vos études, vous ne pourriez pas faire un saut jusqu’en Oklahoma, et de là jusqu’à l’Université de Californie, et essayer de voir ce que de-

<sup>11</sup> “Ainhize-Monyolos. Hiltze”, Herria, 1949-11-03, 2.

<sup>12</sup> “Pau, 14 novembre. Les obsèques des cinq bergers basques victimes de la catastrophe des Açores ont eu lieu ce matin à 10 heures, dans trois villages. Trois corps, ceux de Jean-Louis Arambel, Jean-Pierre Aduritz et Pierre Suquillbide, ont été inhumés aux Aldudes, celui de Pierre Etchepare à Bus-sunarits, et le dernier, Guillaume Chourrout, à Hosta” (<https://www.lemonde.fr/archives/article/1949/11/15/>).

<sup>13</sup> <http://www.belloceturt.org/pages/deces-du-p-adrien.html>.

<sup>14</sup> Azkenean, Gatzitegi Davis campusean egon zen, Sacramento ondoan.

viennent les Basques dans le Far West?”<sup>15</sup>. Nahiz eta Adriani, buruan, Suitza aldera joateko ametsa zebilkion –laborantza duinago bat helburutzat harturik, betiere–, erantzuna baietz izan zen: ingelesez jakin barik, dirurik gabe, bitarteko barik...

### **Beloketik Ameriketara**

Laborantza-ingeniaritza amaituta, Gatzitegik beka bat lortu zuen, eta, horri esker, egingarri bihurtu zitzaion Ameriketara partitzea. Edozelan ere, hortik aurrera, ez zaio laguntzarik faltako inoiz AEBetan, hango pertsona askoren laguntza eta abegi ona jaso zuen-eta. Laguntzaile horien izenak bere bihotzean grabatu zituen betiko Adrian gazteak. Haiei esker posible izan zuen bere ikasketa- eta ikerketa-planak aurrera eramatea.

1950-51 urteak igaro zituen Adrien Gatzitegik Ameriketako Estatu Batuetan eta mundu berri bat idoro zuen herrialde horretako mendebalde urrunean; gizatalde euskaldun bat oso sakabarnatuta bizi zena, baina, hala ere, sare trinko bat osotzen zuena, kilometroak eta elkarrengandiko urruntasun fisikoa gora-behera:

“San Frantziskon nintzelarik, izan zen hiltze bat Bakersfielden. Gazte bat, honat etorri zen, Garazirat, esposatu, joan eta sei hilabeteren buruan pin, pan, pun! eta hil! Bakersfieldera jautsi nintzen enterramenduko. Ez nuen meza esan, hango apezak esan zuen, baina ni mintzatzea nahi ukan zuten. Harriturik egon ziren hasi nintzelarik Aitaren eta semearen... baina ez zuten hainbeste kasu eman. Gero, nik segi, euskaraz, eta orduan bai: *Zer da hori? Euskalduna duk hori!* Meza ondoan jakin nuen etorriak zirela Nevadatik, Wyomingetik... Han, hila badelarik, mila kilometro, bi mila kilometro... behar da enterramendura joan. Han ikusi dut hori... Bai, han izan nuen denbora: *Errazu, zu Buffalotik etorria zira? Zu Rock Springsetik etorria zira? Zu Idabotik etorria?*, baina enterramenduan hori ez zen posible... Orduan pentsa-

<sup>15</sup> <http://www.belloceturt.org/pages/decès-du-p-adrien.html>.

tu nuen: *Gauza bat ezagutzen diat: Reno!* Eta abiatu nintzen Renorat. Arte hartan ukan nuen okasioa auto batena. Lehen-go *Dodge* azkar bat zen, dena berriztatua jarri zuten, motor eta dena. *Egiten abal duzu horrekin urtea!*, esan zidaten”<sup>16</sup>.

1951ko maiatzetik abendura burutu zuen Adrien Gatzitegik bere inkesta, ahalik eta euskaldunik gehienak bisitatu eta elkarrizketatu. *Dodge* zaharberritua hartu, azeleragailua beldurrik gabe sakatu, eta lehenago aitak, bere herritar ugarik eta hainbat euskaldunek zapalduetako bideetan barna abiatu zitzaigun beneditar gaztea:

“De gorges en sierras, de déserts en ranches de bouts de piste, de roulottes en hôtels basques, Adrien Gachiteguy ne négligera rien, comptabilisant, interrogeant, jusqu’à dresser cette extraordinaire carte des Basques en Amérique”<sup>17</sup>.

Hango kanpo-lana eginda, Gatzitegik *Queen Elizabeth* itsasontzian egin zuen bueltako bidaia –joaneko bidaia ere itsasoz egin zuen–, AEBetako New-Yorketik Frantziako Le Havre-raino. Berak kontatzen duenez<sup>18</sup>, ikaragarritzko tenpeetak izan zituzten itsasaldian, baina bera lasai eta eroso egon zelarik, aprobeixatu egin zuen liburuaren idazketari astindu on bat emateko. Lan horrek Beloken izan zuen segida, eta, Ameriketara, estatuz estatu, lortutako dokumentazio teknikoarekin, euskaldunen ahotik jasotako testigantzekin eta berak, bertatik bertara, ikusitakoarekin *Les Basques dans l’Ouest Américain*<sup>19</sup> liburua burutu zuen.

Behar zuen dirua lortuta, Gatzitegik 1955ean argitaratu zuen liburua<sup>20</sup>. Iparraldeko jendearen artean, jakin-min handia zegoenez, liburuak oso harrera ona izan zuen, eta agortu egin

<sup>16</sup> Elustondo, Miel A.: “Adrien Gatzitegi”, Berria-Igandea, 2009-08-23, 11.

<sup>17</sup> [https://www.iruerrege.com/iruerrege.com/Resume\\_Gachiteguy.html](https://www.iruerrege.com/iruerrege.com/Resume_Gachiteguy.html).

<sup>18</sup> *Euskadi Irratia*, Faktoria

<sup>19</sup> Gachiteguy, Adrien, *Les Basques dans l’Ouest Américain*, Ed. *Ezkila*, Beloke-Ahurtu, 1955.

<sup>20</sup> Bordelen inprimatu zen, *Imprimeries Delmas* etxean.



zen. Hirurogeita bat urte geroago, 2016an, Gatzitegi artean bizi zela, Baionako Iru Errege elkarteak bigarren edizioa atera zuen kalera. Berrargitalpena pozarren hartu zuen aldudarrak, baina baldintza bat jarri zion Iru Errege elkarteari, hots, 1955ean argitaratutako modu-moduan kaleratzea, ezertxo ere aldatu gabe. Izan ere, Gatzitegiarentzat liburua une hartako euskal komunitatearen inguruko kronika zen, berak ikusitakoaren argazkia. Berak zioenez, beste zeozer egin nahi izanez gero, egitea daukate gaur eguneko gazteek, eta bikain egingo dute..., baina beste gauza bat egin beharko lukete, derrigorrez.



*Gatzitegiaren lehenengo liburua (1955)*

## **Belokera berriro**

Ameriketatik bueltan, Gatzitegik Belokeko monastegiko baratza eta hartu zituen bere kargu. Baina etxerako ez eze, kanporako ere jarri nahi izan zituen praktikan Angers-eko Nekaza-

ritzako Goi-Eskolan eta Kaliforniako Davis Unibertsitatean ikasitakoak. Izan ere, haren ustetan, inguruko baserritarren joera klasiko eta betierekoak aldatu ezean, etekin eta mozkin duinak lortzea ezinezkoa zen. Betiko martxan jarraituz gero, euskal baserriarenak ez ote zuen egingo zen aldudarraren kezka nagusia.

Gainera, orduko urteetan –lehenago ere bai, jakina–, Ameriketarako ametsa errotu ere erroturik zegoen Aldude, Banka, Urepel... bezalako herri txikietako euskal baserritar gazteen artean, eta hori odol-huste ikaragarria zen Iparraldeko laborantza-mundurako. Gatxitegiarentzat, *El Dorado* mitikoa orduko laborari eta artzain gazteek uste zuten baino hurbilago egon zitekeen: euren etxaldeetan, euren inguru hurbilean, Euskal Herrian bertan...

Giro horretan, Pierre Narbaitz bikario orokorrak Belokeko abat nagusiarekin, Aita Indarekin, hitz egin zuen, eta orduko gazteriaren etorkizunaz zeukan kezka bizia helarazi zion. Aita Indak Gatxitegiarekin jorratu zuen Narbaitzen arrangura hori –bera ere bazena–, eta berehala hasi ziren lanean Lekorne herriko Garro Nekazaritza Eskola ahalik eta arinen martxan jartzeko. Garaitsu horretan, holako ekimen gehiago sortu ziren Iparraldean zehar, eta esan dezakegu, Aita Adrianen parte-hartzea erabakigarria izan zela baserritarren aldeko dinamika horretan. Kasurako, Donibane Garaziko Laborantza-Eskola sortu aurretik, etxaldez etxalde ibili zitzaigun Gatxitegi, jendeari galdezka ea etxeko baten bat prest zegokeen eskola berrira joateko. Sei urtez jardun zuen Aita Adrianek eskolarik eskola laborari gazteak prestatzen. Motorrean mugitzen zen leku batetik bestera: Lekorne (Garroa), Donapaleu (Garikoitzenea), Donibane Garazi (Frantsesenea), Maule...:

“Il y a beaucoup de chemin fait depuis 1948. De plus, nous avons un ingénieur agronome issu du Pays Basque, le R.P. Gachiteguy, qui parcourt tout le pays pour y faire des cours, des conférences et des réunions”<sup>21</sup>.

<sup>21</sup> Fourcade, Jean: “L’enseignement agricole”, in Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua, (8. 1954, Baiona-Uztaritz), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2003, 21-22.




*Adrien Gatzitegi, 38 urtetan*

Orduko ikasketa-planak eta eskola-materialak nagusiki –edo erabat– frantses hutsean izan ohi ziren Estatu Frantziarrean, baina Iparraldeko laborantza giroan orduko egoera linguistikoa arras diferentea zen gaukoarekin konparatuz gero. Gatzitegik berak deskribatzen digu orduko egoera, labur eta zehatz: “Orduan, hemen, laborantza eskuaraz mintzo zen”. Hori dela-eta, –berak Euskadi Irratiko elkarrizketan kontatua– askotan, bere eskoletan ikasleek koaderno bi erabiltzen zituzten, bata euskaraz eta bestea frantsesez. Izan ere, azalpenak-eta ulertuko bazizkioten euskara erabili beharrean aurkitzen zen; nahiz eta, azterketei eta ikuskaritzari begira, irakaspenak frantseserara ere moldatu beharra zeukaten. Lan etengabe horren fruitua izan zen *Laborantza. Laborantza'tik hobeki bizitzeko*<sup>22</sup> liburua, 1963an, Hegoaldean, Iruñeko Gráficas Navarras etxean argia ikusi zuena. Louis Dassancek argitalpen berriaren egokitasunaz eta beharrianaz dihardu liburuko “Aitzin solas”-ean:

<sup>22</sup> Gatzitegi, Adrien: *Laborantza: laborantza'tik hobeki bizitzeko*, Ed. Ezkila, Beloke-Ahurti, 1963 (Léon Aguerrekin batera).

“Egin berri den liburu hau, gure herri eta herrichketako azken etchalderaino, agian, hegaldutuko eta zabalduko dena, behar beharrezkoa dugu, guk Eskualdunek, eta hori, ene aburuz, bi arrazoinen gatik: lehenik, Eskuarari, nahi-ta-ez, doi bat aberastasun ekarriko diolakoan; gero, lur lanean ari diren herritarrek lagunduko dauzkulakotz, aberasten ez dakit, bainan bederen, eta hortaz fida niz, beren ofiziotik hobeki bizitzen... [...]”

Funtsean, laborantzako liburu berri eta oso baten beharra bazela orok ikusten zuten, eta huna nun orai hemen dugun lan bat ederra, eskas eta huts handi hori betheko duena, Aguerre Jaun Kalonjeak eta Aita Gachiteguy beneditanoak, biak eskualdun laborari semeak, hainitz lan, miatze eta ikher-tze ibili ondoan, Eskualduner eskaintzen diotena<sup>23</sup>.



*Laborantzaz, laborariez..., beti lurrari atxikia (1963)*

---

Dassance, Louis: “Aitzin solas”, in *Laborantza*. *Laborantza'tik hobeki bizitzeko*, 5-7. 23

Bide beretik jotzen du Jean-Louis Davantek bere hitzauzurrean: “Eskual-Herriko laborari etxe guzietan sarthu behar luke laborantzako liburu hunek”, bereziki, gazteek erabili ahal izateko. Haren ustez, liburuak maisuki elkartzen ditu jakituria zaharra, aurrerapenak eta teknika berriak; eta, bera ere laborantzaren ingeniaria eta irakaslea den aldetik, honakoa gehitzen du:

“Erakasle bezala, dudarik gabe diot liburu hau behar ginauela Euskal-Herriko eskoletan, bestenez ezinago zailak ditazken hazkurriak gazteen menean emaiten ahal baititu, beren egun oroztako mintzairan apailatuak, Eskuara argi eta garbi batez jauntziak”<sup>24</sup>.

### **Afrika aldera: Benin...**

1962. urtean Aita Gatzitegi Afrika aldera jo zuen, Belokeko komunitateak monastegi beneditar bat eraiki nahi baitzuen Beninen, lehenago Dahomey izena zuen Afrika mendebaldeko herrialde horretan. Beneditarren komunitatea Zagnanado herrian kokatu zen, baina Gatzitegi heldu zenean den-dena zegoen egiteko:

“Haste hartan, aita *Adrien Gachitegi* eta biak [Anai Gabriel<sup>25</sup>] ziren bakarrik, bai palmondoen artatzeko, bai fraidetxearen eraikitzeko. Orain [1987] badauka larogei eta hamar urtez goiti; eta ez du segur aita *Adrien* ahanztekoa. Ikusten izan naizen aldi oroz, eman dizkit harentzat berak pusarazi biper gorriak”<sup>26</sup>.

<sup>24</sup> Davant, Jean-Louis: [“Aitzin solas”], in Laborantza. Laborantza'tik hobeki bizitzeko, 9-10.

<sup>25</sup> “Beharrik fr. Gabriel hor baita! Adixkide zahar batzu bezela elgarri josiak gira, biek ideia berak baititugu. Ikusteko ere bada izpirituz zein gazte den, bethi aintzina joiteko. Hain da kontent ikusiz haren lanak izanen duela segida” (A. Gatzitegi: “Zañanado-ko harat hunatak”, Othoizlari, 36, 1963, 551).

<sup>26</sup> Iratzeder, Xabier: Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean, Elkar, Donostia, 1991, 18.



*Adrien Gatzitegi, Beningo misioan (Otoizlari)*

*Laborantza. Laborantza'tik hobeki bizitzeko* liburua argitaratzen denean, 1963an, Gatzitegi Beninen dago, eta bertatik bidali zuen liburuko aitzin-solas bien ostean agertzen den gutuna, zeinetan Léon Aguerreiren laguntza beren-beregi eta zinez eskertzen baitu<sup>27</sup>.

Afrikako lur urrun haietan jardun zuen Adrien Gatzitegik, jo eta su jardun ere, 1969. urtean, Belokera itzuli zen arte. Egonaldiaren azken urte bietan (1968-1969), hala ere, Edouard Lisop eta beste lagun batzuekin batera, eskolak antolatzen eta irakasleak prestatzen ibili zitzaigun, han-hor-hemen –Benindik kanpo ere bai: Kamerun, Txad...–, bertako gazteak etorkizun hobea eta duinago bati buruz bideratzeko.

<sup>27</sup> Laborantza..., 11. or.

Bitarte horretan, Aita Adrianek egonalditxo bat egin zuen Beloken. Izan ere, Beningo misioko P. Charles fraide adintsuak, nahiko gaixorik zegoenez, Belokera bueltatu beharra izan zuen, eta Aita Gatxitegik lagundu zion bidaian. 1968ko abuztuaren 8an hartu zuten hegazkina Belokerako bidea egiteko. Kontua da, uda horretan, Afrikako Txad herrialdetik etorritako fraidegai talde bat zegoela Hazparnen; eta, Beninera bueltatu aurretik, Gatxitegik profitatu egin zituen egonaldiko egunak Txad-eko fraidegaiei ikastaro bat emateko: “Beltzeri erakats-aldiak eman-eta, orai badabila bertze bi lagunekin erresumaz erresuma, Afrikako errientak [maisua] argitu eta sustatu beharrez”<sup>28</sup>.

Beneditarrek 1989. urtean itxi behar izan zuten Zagnanadoko misioa, baina fraideetako batzuek Kouabri-ko abadian (Burkina Faso) jarraitu zuten. Handik bederatzirtera, 1998an, Beningo bertako Henkanmê-ra bueltatu ziren, non Mont-Thabor monastegia zabaldu baitzuten.



*Beloketik Zagnanado-ra (Otoizlari)*

<sup>28</sup> “Elkarren berri”, Otoizlari, 53, Martxo 1969, 18.

## **Belokeko txoria, Belokera**

Afrikako lurretan zortzi urtetsu emanik, Adrian Gatzitegi Belokera, bere habia maitera bueltatzen da, eta orain ere, laborantza eta abeltzaintza izango ditu betebehar nagusi. Aita Philippe Mathieu-rekin *Ardiga* ardi-gaztaren ekoizpenari ekingo dio, inguruko laborari eta artzainekin antolatutako kooperatiba baten baitan, betiere. Bide beretik, berreskuratu egiten du buruan zerabilen proiektua, hots, monastegiko nekazaritza teknikak, usadioak-eta eguneratzeko egitasmoa: ardi- eta abere-hautaketa selektiboa, hobekuntza genetikoa, aurrerapen teknikoak...:

“Belokeko Fraidetxean, eguneroko otoitzaldien gainera, artalde handi batez eta gasnategiaz arduratzen zen Aita Ignace Etchehandi bezalako langile xintxoekin. Denbora berean, 50 hektarea eremutan, gun e bako txean araberako zuhaitzak landatuz eta behar den bezala artatuz, loriagarriko oihanaren jabe bilaka arazi du Belokeko Fraidetxea”<sup>29</sup>.

Baina adinean aurrera zihoan neurrian, Aita Adrianek, apurka-apurka, alde batera utzi behar izan zituen laborantza-rekin loturik zeuden lanak eta ardurak. Horrek, baina, posible egin zuen aldudarraren baitako beste alderdi batzuk azalera-tzea: ekonomiaren nondik norakoen azterketa, euskara eta euskal kulturaren inguruko interesa, naturarekiko lotura per-tsonalago bat... Giro berri horretan, 89 urte dituela, 2010ean, *Zuhaitzak Euskal Herrian*<sup>30</sup> liburua eman zuen argitara, eta bi urte geroago, 2012an, *Imilitz uraren harana*<sup>31</sup>.

---

<sup>29</sup> “Haragnordoquy, Jean-Louis: “Aita Adrian Gachiteguyren bizi aberatsa”, in *Zuhaitzak Euskal Herrian*, 14. or.

<sup>30</sup> Gatzitegi, Adrien: *Zuhaitzak Euskal Herrian*, Hemen Elkartea, Angelu, 2010.

<sup>31</sup> Gatzitegi, Adrien: *Imilitz uraren harana*, Maiatz, Baiona, 2012.



## Gatxitegiren azken lanak

Goiago aipatu dugunez, Gatxitegik, adintsua zela, argitaratu zuen *Zuhaitzak Eskual Herrian* liburua. Ekonomiaz arduratzen den Hemen elkarteak proposatu zion Gatxitegiri liburua egitea, euskara hutsean egitea ere; eta fraide nekaezinak berehala eman zuen baiezkua. Edozelan ere, lagun jator batzuk ere izan zituen Gatxitegik argitalpenaren prestaketan: batetik, Mirentxu Parachu-Elissalde, Pantxika Maitia eta Gabriel Durruty; eta, bestetik, Kepa Etchandy eta Beñat Arbelbide argazkilariak.

Liburuaren aurkezpenaren kariatara, Hemen elkarteak ekitaldi publiko bat egin zuen Alduden, Adrianen jaioterrian, hain zuzen ere. Liburua argitaratu zuen elkartearen lehen-dakari René Harluxetek honelako hitzak zuzendu zizkien bertara bildutakoei:

“Pentsatzen ahal da zuhaitzek ez dutela gauza haundirik ikusteko ekonomiarekin, bainan ez da ahantzi behar zuhaitzak gizakien gabe bizitzen ahal direla, baina gu ez girela deus haiek gabe. Eta hala ere, zuhaitz fruitudunak adibidez, garapen ekonomikoarentzat tresna interesgarriak izaiten ahal dira”<sup>32</sup>.

Itsasu herriari bagagozkio, 1950-1960 hamarkadan heldu zen bere puntu gorenera hango gerezia –urtean 300 tona inguru–, albo-herrietan ere gereziondo asko landatu baitziren. Gerora, behera egin zuen gerezia merkatuak Itsasu aldean: “1990eko urteetan egin dugun azken kondaketan, bakarrik hamar arbola gelditzen ziren Itsasun, Geroztik, Itsasuko gerezia G.I.E. eta Xapata elkarte bidez, salbatua izan da [gerezia] Beltxa”<sup>33</sup>.

<sup>32</sup> Petrissans, Mattin: <http://info.kazeta.eus/mundua/adrien-gachiteguy-bertako-jendeek-oihana-errespetatzen-zuten-aldiz-gerla-eta-militarrek-ez>.

<sup>33</sup> Zuhaitzak Euskal Herrian, 120.

Gatxitegiren laguntzaileek ere euren testigantzak eta esker onezko hitzak eskaini zituzten aurkezpenean, beneditarraren dohainak eta jakituria azpimarratzen zituztelarik. Hona hemen, Mirentxu Parachu-Elissalderen esker onezko hitzetariko batzuk:

“Gai hau aipatzen duten liburu gutti dira eta gure hizkuntzan oraindik murrizago. Aita Adrien Gachiteguyri milesker haundiak zuzendu nahi dizkiot guretzat eta gure haurrentzat haren ezagutzaren parte ttipi baten aztarnak uzteagatik”<sup>34</sup>.

Liburua laster agortu zelarik, Aita Adrianek baimena eman da zeukan bigarren argitalpena egin zedin. Jakes Casaubonek egindako gehigarri batekin hornituta berrargitaratzea pentsatu zuten, baina proiektua bertan behera geratu zen. Edozelan ere, Hemen elkarteak berriro ekin zion berrargitalpenaren asmoari, eta 2018ko azaroaren 13an egin zuten bigarren edizioaren aurkezpena:


*“Euskal belaunaldi berriak zubaitzen balioaz obartaraztea eta sentiberatzea. Hori da Hemen elkarteak aurkeztu duen Zubaitzak Euskal Herrian liburuaren edizio berriaren xede nagusietako bat. Zubaitzen jakintza baserritar guztiek zuten kultura bat zen, euskaraz kontaturik, oraino aberatsagoa. Azken hamarkadetan franko galdu baita, berriz jendarteratzeko beharra sentitu genuen adierazi dute aurkezpenean”<sup>35</sup>.*

Damurik, Aita Gatxitegik ezin izan zuen edizio berri hori kalean ikusi, hil batzuk lehenago zendu baitzen. Hala ere, haren oroimena Jean-Mixel Bide, Jakes Casaubon eta Jean-Louis Harignordoquy aurkezleen hitzetan ez ezik, bertara bildutako guztien gogo-bihotzetan ere bizi-bizirik izan zen.


---

<sup>34</sup> Petrissans, Martin: <http://info.kazeta.eus>.

<sup>35</sup> [https://www.kazeta.eus/eu/info\\_kz/20181116](https://www.kazeta.eus/eu/info_kz/20181116).



*Zuhaitzak Euskal Herrian (2010)*



*Umetako baranaz (2012)*

Gatxitegiren azken liburua ere, eskaera baten inguruko lana izan zen. Gainera, proposamena, berak bihotzaren erditik maite zuen ingurutik heldu zitzaion, bera jaio zen bailararik, hain zuzen ere. Izan ere, Urepel herriak 150 urte betetzen zituela-eta, Mixel Ernagak, hango alkate jaunak, proposamena egin zion Aldude-Banka-Urepel inguru horretaz liburu bat egiteko: “Ez dut bi hilabete emanen zure liburua egiteko”<sup>36</sup> erantzun zion poz-pezik, eta laurogeita hamar urte baino gehiago izan arren, buru-belarri heldu zion lanari. Baita liburua burutu ere: “Ikaragarri atsegin izan nuen liburu hori egitea” zioskun Euskadi Irratirako egin zioten elkarrizketan, maitasunez esan ere.

Elkarrizketa berean, Gatxitegiren azken asmoaren berri daukagu. Izan ere, ikertzaile nekaezinak ikerketa-lerro berri

<sup>36</sup> Euskadi Irratia, Faktoria.

bat zeukan buruan, menditik itsas bazterrera jauzi eginik: “Euskaldunak eta itsasoa” aztergaia, hain zuzen ere. Ez dakigu berak irratian aipaturiko proiektua zertan geratu zen, ez baita inon aipatzen delako egitasmo horri buruzko konturik. Bide beretik, badirudi besterik ere bazuela esku artean; izan ere, *EuskalKultura.com* webgunean adierazten zitzaigunez, “Azken urteetan, Belokeko oroitzapenak idazten ari omen zen”<sup>37</sup>. Tamalez, kasuon ere, ez dago balizko lan horri buruzko informazio gehiagorik.



*Atta Gatzitegi Beloken*

## **Azken bidaia**

Adrien Gatzitegi 2018ko ekainaren 21ean, gauerdian, eman zuen azken hatsa Belokeko abatetxean, ondoan bere anaia beneditarrak zeuzkala. Beloken egindako hileta-elizkizunetara eta ehorzketara jendetza handia bildu zen. Aldarean 40 bat elizgizon, abade zein fraide, euretako asko Hegoaldetik joanikoak (Lazkao, Estibalitz...). Mezatan, senide, artzain eta

---

<sup>37</sup> <http://www.euskalkultura.com/euskara/albisteak>.

laborari lagunen lekukotasunak entzun ziren, baita Laka bertsolariaren hurrengo bertso samurrok ere:

*Amerikako euskal artzainak bi urtez xerbitzaturik  
Laborantzako lehen eskolak haste hartan lagundurik  
Lurren gaineko jakitatea oso osoan bildurik  
Aita Adrien, milesker zuri, denak izkiriaturik!*

*Otoitza eta lan jarraikia ziren zure bertuteak  
Hola iragan dituzu zure bizi luzeko urteak  
Fraide etxeko eta kanpoko adiskide bain maiteak  
Atsegabeen ezarri gaitu hemendik zure joaiteak.*

*Zuhaitz ederrak, igalidunak beiratu dituzu xutik  
Hazkuntza ere bultzatu duzu artzaintzan hasi pundutik  
Ikus artio Aita Adrien! Azken otoitz hau mundutik:  
Gure memento ilunenetan argi gaitzazun zerutik!<sup>38</sup>*

## Bibliografia

- BIDADOR, Joxemi: “Laborarien liburuez”, Euskaldunon Egunkaria, 1995-03-31; 1995-04-07; 1995-04-14 (<https://armiar-ma.eus/emailuak/bidador/artikuluak>).
- BOSC, Adrien: *Constellation*, Editions Stock, Paris, 2014.
- DIHARCE, Xabier (*Iratzeder*): *Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean (1987-1988)*, Elkar, Donostia, 1991.
- ----: *Beloke-ko abatetxearen historia (1875-1975)*, Ed. Mensajero, Bilbo, 1993.
- DUHAU, Henri: “Iparraldeko pizkunde aro baten lekuko hau berriz argitaratzerakoan”, in *Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko*, bigarren edizioa, Euskaltzaindia, Bilbo, 2019, XV-XXXIII. or.

---

<sup>38</sup> Idem.

- FOURCADE, Jean: "L'enseignement agricole", in *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua*, (8. 1954, Baiona-Uztaritz), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2003, 21-22 (*Basque-Eclair*, 7-8 août 1954).
- GADIADOR, Mitch: "Oklahomako Bihotz Sakratua Abadiako euskal beneditar ahaztuak (I/II)", *Euskonews*, 462 (2008/11/21-28), 463 (2008/11-28/12-05), <http://www.eusko-news.eus>.
- GATXITEGI, Adrien: *Les Basques dans l'Ouest Américain*, Ed. Ezkila, Beloke-Ahurti, 1955. Bigarren edizioa: Ed. Iru Errege, Baiona, 2016.
- ----: *Laborantza. Laborantza'tik bobeki bizitzeko*, Ed. Ezkila, Beloke-Ahurti, 1963 (Léon Aguerre jaun kalonjearen laguntzarekin). Bigarren edizioa: Duhau, Henri (paratzailea), Euskaltzainak Bilduma, Euskaltzaindia, Bilbo, 2019.
- ----: "Beloketik Zañanadorat. Afrikan ikuska", *Othoizlari*, 34, Avril 1963, 496-500.
- ----: "Problèmes de vie des jeunes émigrants Basques actuels aux U.S.A.", in *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua* (8. 1954. Baiona-Uztaritz), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2003, 51-54.
- ----: "Problèmes de vie des anciens émigrés Basques aux U.S.A.", in *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua* (8. 1954. Baiona-Uztaritz), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2003, 55-58.
- ----: "Artzain mundua", *Herria*, 2.955, 2008-05-01, 6.
- ----: *Zubaitzak Euskal Herrian*, Hemen Elkartea, Angelu, 2010 (Aitzin-solasa: Jean-Louis Harignordoquy). Bigarren edizioa: Hemen Elkartea, 2018.
- ----: *Imilitz uraren barana*, Maiatz, Baiona, 2012 (Aurkezpena: Jean-Louis Laka; Aitzin-solasa: Eñaut Etxamendi).
- ELUSTONDO, Miel A.: "Adrien Gatzitegi", *Berria-Igandea*, 2009-08-23, 10-11.

- EUSKADI IRRATIA: *Faktoria*, “Adrien Gatzitegi, ikerlari nekaezina ezagutu dugu”, 2017-01-05 (24'04'´).
- IRIGARAI, Angel (*Apat Etxebarne*): “Gachiteguy, A.: *Les basques dans l'ouest américain*”, *Egan*, 5-6, 1956, 154-155.
- LAKA, Jean-Louis: “Aita Gatzitegi” (bertsoak), *Herria*, 2.955, 2008-05-01, 6.
- ----: [“Amerikako euskal artzainak bi urtez xerbitzaturik”] (bertsoak), <http://www.euskalkultura.com/euskara/albisteak>.
- VILLASANTE, Luis: “Gachiteguy, A., Aguerre, L.: Laborantza”, *Egan*, 1964, 164-165.

*Iñaki Sarriugarte Irigoien*